

# Julene Azpeitia Lehiaketa

2001



# JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK

2001. URTEA

Argitaratzailea:



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea:



■  
**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

■  
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertso paperak. 2001. urtea

*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga

*Argitaratzailea:* Durangoko Udala

*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati

*Inprimategia:* Gertu. Oñati

*Lege Gordailua:* SS-1199/01

2001eko azaroa

# AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	7
<i>Nerea Urien Azpitarte</i>	
<i>Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Lehendakaria</i>	
<u>IPUINAK</u>	
<hr/>	
LATOIZKO AUTOA .....	11
<i>Milia Zabala Antxia</i>	
JONEK BEGIAK ZABALDU ZITUEN .....	17
<i>Maria Oyarzabal Perez</i>	
EGUNEROKO EZBERDINAK .....	25
<i>Maitane Beobide</i>	
MUNDUKO LEHEN MIKROFONOA .....	33
<i>Iasmina Gorroño Elorriaga</i>	
ERRETRATUAK EGITEKO BAINO EZ NAIZ BIZI .....	41
<i>Josu Unzueta Ajuria</i>	
<u>BERTSO PAPERAK</u>	
<hr/>	
BERTSOA .....	111
<i>Paule Trapilla</i>	
BERTSOAK .....	117
<i>Ekain Etxanobe</i>	
XIRULA HARTUTA .....	111
<i>Txomin Magdalena Arriaga</i>	
SAR DADILA KALABAZAN .....	117
<i>Julen Zelaieta Iriarte</i>	

# HITZAURREA

*Julene Azpeitia Ipuin eta Bertso-paper Lehiaketa* izen bereko irakasle euskalduna gogoratzeko antolatzen du Durangoko Udalak. Julene, Zumaiarra jaiotzez, gerra aurrean aritu izan zen Durangaldeko eskoletan euskara irakasten. Gerra osteko urte latzak, aldiz, umeentzako liburuak idazten eman zituen. Horregatik, lehiaketa honetako atalik gehienak gazteei zuzenduta daude, umeak baitzituen Julenek etorkizunerako ardatz eta esperantza. Euskararen normalizazioaz dihardugun honetan, ezin ahaztu dezakegu duela mende erdi baino gehiago ere hainbat ahalgin eta ekimen egin izan zirela euskararen transmisioa bermatzeko. Oraingoa, beraz, aitzindari argi, ausart eta sutsuen lanaren ondorengoa da: Julene bera honen lekuko.

Aurtengo edizio honetan bost ipuin eta lau bertso argitaratzen ditugu, eder askoak guztiak, eta ederrak baita ere Imanol Larrinagak eginiko marrazkiak. Sinbiosi honetan testuak eta irudiak elkarren uztarkide eta jolas-lagun agertzen zaizkigu, bata zein bestea eskutik helduta jaiotze bezala.


Besterik ez, ireki liburua, ireki azaleko potea, eta murgildu zaitezte literatura eta marrazkien magian, goxatu ederra hartuko duzue-eta.

Durangon, 2001eko azaroan.

NEREA URIEN AZPITARTE

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko lehendakaria

ipuinaak



Irabazlea  
11-12 urteko  
sailean

2001

18

Milia Zabala

2001

MARTXOA

18

17

1970

MARTXOA



## LATOIZKO AUTOA

*K*ontatuko dizuedan ipuina 1901eko gabonetan kokatut dut herri txiki eta pobre batean. Protagonista Martin da eta urte horretako gabonak nola pasatzen dituen kontatuko dizuet.

Martin mutiko langile eta eskuzabala zen. 7 urte zituen eta bere ilea ilargi eta izarrik gabeko gaua bezain iluna zen. Bere begiak berriz, belar sikua bezain argiak ziren.

Lau bat taberna zituen herriko kale ilun eta bakarti bateko kale kantoi batean bizi zen gurasoekin. Familian ez zeukaten diru askorik eta, beraz, Martini ez zioten gauza askorik erosten, baina maitasun handia ematen zioten.

Ama etxeko lanetaz arduratzen zen eta Martin, txikitatik, ondo hezia zuen. Aitak nagusi batentzat zerbitzatzen zuen etxe baten, baina nagusia ez zen bat ere eskuzabala, 5 pezeta baino ez baitzion ordaintzen hilean.

Gabonak heltzear zeuden eta Martinek ez zekien zer eskatu Olentzerori, gainera bazekien Olentzerok ezingo ziola gauza askorik eka-







rri ez baitzeukan diru askorik. Hori bai, aurreko gabonetan Bizkor ize-  
neko txakurra oparitu zion.

Larunbat goizean Martin, lanak egin ondoren, Bizkor bere txaku-  
rrarekin paseatzera irten zen.

Dagoeneko dendak hasiak ziren erakusleihoetan jostailuak ipintzen.  
Martin dendaz denda zihuan erakusleihoetan zeuden jostailuak begira-  
tzen, baina jostailu batek ere ez zuen Marin erakartzen. Bat batean,  
denda zahar eta bitxi baten aurretik pasatu zen eta sartzea erabaki zuen.

Denda txikia, baxua eta zaharra zen, baina hala ere ez zion horrek  
Martini gauzak ikustea galarazi. Gauzak begiratzen hasi zen, eta den-  
dako izkina batetik azal ilun, ile zuri eta betaurrekoak sudur lodian eus-  
ten zituela, agure zahar bat irten zen. Agureak laguntza eskaini zion eta  
Martinek zerbait polita nahi zuela esan zion. Agurea ate batetik desa-  
gertu zen eta Martinek bitartean denda begiratzen jarraitu zuen.  
Denetarik zegoen: etxerako, batez ere sukaldarako gauzak, janariak,  
erremintak, zapata pare batzuk, Martini gustatzen ez zitzaizkion jostai-  
luak,... Ezerk ez zion Martini arreta deitu eta, bat batean, izkina bate-  
an Martin benetan liluratu zuen latoizko auto txiki bat zegoen. Hurbildu  
eta begiratzen hasi zen. Autoaren goialdea berde iluna zen. Ez zeukan  
gaur egungo autoen bat ere antzik.

Beso artean hainbat jostailu zekartzala agertu zen agurea, baina  
ezer esan baino lehen, Martinek ea zenbat balio zuen latoizko autoak

galdetu zion, eta dendariak 15 pezeta balio zituela esan zionez, Martin buru makur irten zen dendatik.

Etxera itzuli zenean amari arraroa egin zitzaion Martin horrela ikustea, baina Martinek ez zitziola ezer gertatzen esan zion.

Aita etxera heldu zenean, Martini amak esandako gauza bera galdetu zion eta, azkenean Martinek, egia esan zion. Aitak Olentzerok ezin zuela hain gauza garestirik erosi esan zion.

Isilean, gauetan, Martin lotara joaten zenean, lana egiten zuen eta, dirua aurreztuz, Gabon eguna heldu zenerako 14 pezeta lortu zituen. Baina nondik atera azken pezeta?

Burua apurtzen aritu zen, ez baitzeukan nondik atera pezeta hori, eta kalera irten zen. Bere kalean zegoen taberna batetik iskanbila izugarria zetorren, eta Martinen aita hurbildu egin zen zer gertatzen ote zen jakiteko.

Tabernan sartzeraz zihoanean, mozkor bat agertu eta zera esan zion Martinen aitari:

- Hartu ezazu pezeta hau, segur aski zuk nik baino gauza garrantzitsuago baterako erabiliko duzu eta.

Aitak eskerrak eman eta gertatu zena sinistu ezinik, zuzen zuzenean dendara joan zen. Sartu eta Martinen aita harriturik geratu zen. Agure hura, aspalditik ikusi gabe zuen bere lehengusu zaharrenetariko bat zen.



Eskua eman eta hitz egiten egon ondoren, Martinen aitak, latoizko autoa erakusteko eskatu zion. Orain ulertzen zuen zergatik balio zuen hainbeste: Martinen aitonaren txikitako jostailu maiteena izan zelako. Berehala poltsikotik 15 pezetak atera zituen eta dendariak hamar pezeta bakarrik hartu zizkion.

Agurtu ondoren, aita kalean gora igo zen.

Gabon afarirako ez zuen ezer espero, baina etxera heldu eta atea zabaldu zuenean... Martin eta bere ama atean zeuden aitari itxaroten eta sukaldeko mahaia -ez zeukaten jangelarik- janariz beterik zegoen. Martinen aitak zera galdetu zion bere buruari: “Nondik atera ote dute janari guzti hau erosteko dirua?”

Mahaian denetik zegoen: aperitiboak, arrain-zopa, entsaladak, pasta... Beste mahaitxo batean, okelak, arrainak, oilaskoa, barraskiloak, albondigak, arrautzak... Eta azkenik, beste mahaitxo batean, postreak, polboroiak, pastelak, eta abar.

Betekada izugarriarekin joan ziren ohera hirurak.

Hurrengo goizean Martin esnatu eta gosaltzera zihoanean... egongelan latoizko autoa ikusteak ustekabeen harrapatu zuen.

Martinen galdera zera izan zen: “Nondik irten ote da latoizko auto hau?”





## JONEK BEGIAK ZABALDU ZITUEN

*J*on mutil arrunt bat zen, baina ez oso normala, ez zitzaizkiolako gustatzen bera bezalakoak ez zirenak.

Beti jolasten zuen bere betiko lagunekin, beraren oso antzekoak.

Jende desberdina ikusten zuenean, ez zuen haien ondotik pasatu nahi, zikinak zirelako. Eta zikindu ahal zutela pentsatzen zuelako...

Egun baten Jon, bere lagunekin jolasten zegoela, aldape batetik jausi zen.

Eskerrak hortik ijito batzuk pasatu zirela eta ikusi zutela nola jausiten zen!, korrikan joan ziren, hartu zuten eta ospitale batera eraman zuten.

Jonek ez zuen hezur bat ere ez apurtu, baina lesio handi bat zuen begietan.

Ospitaletik etxera ailegatu zenean, egokitu zen udako oporrak hasi zirela.



Lagunek Jon agurtu eta oporretara joan ziren guztiak.


Jon bakarrik geratu zen, jolasteko lagunik gabe.

Egun batzuk pasatu ziren eta Jon gero eta aspertuago zegoen, ezin zuelako telebista ikusi eta ordenagailuan jolastu, begiak bendatuta zituelako, eta horrela hilabete bat egon behar izan zuen gutxienez.

Egun batean, bere amak erabaki zuen Jon kalera joan behar zela airea hartzera.

Bere ama urrundu egin zenean momentu bat, oso triste eta bakarrik sentitu zen Jon.







Bat batean ahots bat entzun zuen:

- Kaixo! Zer gertatzen zaizu begietan?

- Istripu bat eduki nuen -erantzun zuen Jonek harrituta- baina laster kenduko dizkidate bendak. Nor zara?

- Tom deitzen naiz, eta hauek nire lagunak dira: María, Ander eta Mikel, bere anaia. Gurekin jolastu nahi duzu?

Jonek hasieran ezetz esan zuen pentsatzen zuelako begi estaliek ezingo zuela jolastu. Baina neska-mutil haiek animatu zuten eta joko asko asmatu zituzten zeinetan ikusmena ez zen behar. Adibidez itsumandoka, hitzekin jolastea... Inoiz ez zuen jolastu hain gustura!



Egunero kalera joan nahi zuen bere lagun berriekin.

Egun bakoitzean jolas desberdinak asmatzen zituzten, edo batzutan belarrean etzaten ziren txisteak kontatzeko, eta oso ondo pasatzen zuten denbora.

Egun baten medikuak deitu zion esanez ospitalera joateko bendak kentzera.

Etxera heldu zenean pozik sentitu zen, eta bere lagunak ikusteko gogo handiarekin. Kalera bajatu zen eta betiko lekura joan zen. Ume oso errubio batek galdetu zion:

- Ezagutzen al nauzu?

Jonek begiak itxi zituen eta esan zuen:



- Tom? Zein ile errubioa daukazun!!

- Nire aita alemaniarra da.

Segidan María, Ander eta Mikel etorri ziren.

María oso beltzarena zen, oso ile beltzarekin. Marokoarra zen.

Ander eta Mikel ere beltzaranak ziren, perutarrak zirelako.

Jon konturatu zen bere lagunik onenak fisikoki berarengandik oso ezberdinak zirela, eta horrek ez zeukala garrantzirik, garrantzitsuena pertsonen bihotza dela.

Jonek azkenean begiak zabaldu zituen.





Irabazlea  
13-14 urteko  
sailean

2001



Maitane Beobide 18



# EGUNEROKO EZBERDINAK

## OLATZEN EGUNEROKOA

2001eko martxoak 16

*O*latz naiz, 17 urte ditut. Eguneroko hau Mikelek oparitu dit, orain dela bi egun, gure lehen urtea bete dugu elkarrekin eta.

Nolako kasualitatea!!! Amodioak edo... eragina. Nik ere bat erregalatu diot; espero dut bertan gure erlazioari buruzko kontuak eta gertakariak idaztea, neuk ere hori egingo dut eta...

Ostiral hau benetan harrigarria izan da, klase aspergarri baten ondoren saskibaloiko entrenamendu gogor bat izan dut. Hala ere, pozik bukatu dut eguna, Mikelekin geratu bainaiz. Beti elkartzen garen tabernara joan naiz, *Akiakulara*. Bertan ikusi dut, espaloian jarrita, "Lucky" paketea eskuan zuela. Batzuetan leloa iruditzen zait!!! Euria ari zuen eta bera kanpoan, ni itxaroten. Busti-busti zegoen gizajoa!





Paketetik zigarro bat atera eta eskaini egin dit, gauza garrantzitsu bat esan behar zuelakoan. Horrelako momentuetan ez dut erretzeko gogorik izaten. Akiakularen atzean dagoen lokal batera joan gara, bera eta bere lagunek duten musika taldeak entsaiatzeko duten lekura. Jonek, bere lagunik minenak, baxua jotzen du, Mikel primerako abeslaria da. Arnatzek teklatura jotzen du. Gariri, primeran ematen zaio gitarra, eta Alaine, berriz, bateria jotzen du. Taldearen izena, *Anagrab* da, eta musika heavya egiten dute.

Lokaleko sofa zahar horietako batean eserita egon gara, eta musukatu ondoren, nirekin amodioa gustura egingo zuela esan du. Orain bai!!! Zigarroa hartu eta erretzeari ekin diot. Hau bukatzerakoan, baietza eman diot, baina nire kezka bakarra eta larriena non eta noiz egingo genuen izan da. Nire lehengo aldia denez, leku lasai batean egitea pentsatu dugu. Azkenean, lokaleko sofan egingo dugu, bihar, getan. Musu bat eman, eta etxerantz abiatu naiz, zerbait berria sentitzen nuelarik.





2001eko Martxoak 18

Atzo ez nuen idatzi, Mikelekin egon bainintzen.

Gaur ere ez dut asko idatziko, berriro berarekin geratu bainaiz.

Benetan zoragarria izan da!!! Heldu bezain laster sofa ohe bihurtu dugu. Ia hiru zigarro erre ditut 15 minututan. Gerritik ebatu eta sofa-  
ren kontra bota nau, ondoan jarri eta musukatu ondoren, gertatu behar zena gertatu da.



Bat batean txori kantak entzun ditugu, jadanik egunsentia zen eta joan beharra nuen. Musu bat eman eta gaur arratsalderako geratu gara. Etxera joan eta dutxatu ondoren, bazkaldu egin dut. Gero idazten hasi naiz.

Idazteari utzi behar diot, oraindik jantzi gabe nagoelako eta ordu erdi barru, Akiakulara joan behar dudalako.

Hamabiak dira eta Mikelekin orain arte egon naiz. Gure erlazioa moztu du. Oso triste nago, batez ere, amodioa bakarrik egiteko erabili nauelako izan dela uste dut. Ez dut inoiz gehiago egunkari honetan idatziko.



## MIKELEN EGUNEROKOA

**2001-eko Martxoak 16**

Mikel naiz, 17 urte ditut. Nahiz eta hau idaztea lelokeria bat iru-ditu, idatzi beharra daukat, Olatzi zin egin baitiot. Olatz nire neska laguna da. Arratsaldean berarekin geratu naiz, nahi dudana lortu dut, bihar amodioa egingo dugu.

Etixerantz etortzerakoan farmazian geratu, eta kondoi pakete bat erosi dut. Garestiak dira, benetan!!!

**2001-eko Martxoak 18**

Olatzek ikaragarria dela esan du, baina, niretzat 10 minututako gauza izan da, asteburu askotakoa bezalakoa. Arratsaldean, berarekiko erlazioa moztuko dut; ez zait asko gustatzen jadanik, eta ez nago gustu-  
ra. Pena bat da, urte bete daramagu eta.

Ez dut gehiago idatziko, Olatzen lelokerietako bat delako! Neskak eta beren erromantizismoa... Segur aski, berak hau kontatzeko hamar orrialde edo gehiago erabiliko zituen.

Egia esanda, Olatz ez zait asko axola.





## MUNDUKO LEHEN MIKROFONOA

*1901* ean konektatu ninduten mundu honetara. Eta beno, egia esan, nongoa naizen galdetuz gero, zerbait esan beharra dagoelako, austriarra naizela esan arren, zintzoki diotsut, ez nukeela sekula santan jakingo galdera horri erantzuten, hemengo bezain hangoa naizelako nahiz eta gaur egun Bilbon bizi.

Bertara etorri nintzen edo ekarri ninduten New York-eko Manhattan sagar handiaren bihotzaldetik.

Bizitza osoan zehar, normala den legez, denetariko sentimendu arrotzek inbaditu izan naute: beldurrak, pozak, gorrotoak... eta lanpostuz, behin baino gehiagotan aldatu izan dut.

Orain berriz, erretiratuta nago, zentimorik gabe, eta INSERTO<sup>n</sup> sartuta, preso. Erreuma txerri honegatik ez balitz, dirua izanen banu, eta aske egongo banintz, nork daki! Agian, neu ere “Benidorm” delako horretara joango nintzateke, diskotekako eszenatoki erraldoi horietako erdialdean jarri, eta gaztea nintzenean bezala, baten baino gehiago-

ren bihotzak konkistatuko nituzke. Baina, ametsak amets. Azken finean, hain nago ugerrak janda, beldur naizela mugitzeko ere!

Lehen esan bezala, 1901ean jaio nintzen Austriako Salzburg herrian. Nik, garai haietako izarrak, makina bat begirale neuzkan atzetik eta ez nintzen ez edonolako gauza: “Bit Roler” bat nintzen. Munduko lehenengo mikrofonoa. Bai horixe!

Hasera batean, Henri Austerlich-en atzaparretan erori nintzen. Bera, dendaria zen ofizioz, eta ni berriz, haren familia aurrera aterako zuen erreminta. Horrela, bere “boutique” musikaleko erakusleihoan pasanituen egun bat, bi... harik eta gizon oso dotore bat begira-begira gelditu, ezker aldeko ateari bultzakada bat eman, eta zera esan zuen arte:

*-Gutten morgen Henri! Horko tramankulu hori nahi dut!*

Gauzak horrela, konturatu orduko, gizon dotore haren bulegoan nengoen. Fisher Hamburg-en bulegoan. Udaletxean. Alkatearen bulegoan. Eta han egon nintzen 1914ean Lehen Mundu Gerra hasi zen arte.

Hainbat eta hainbat austriar bezala, Fisher, alemanen alde jarri zen. Eta besterik gabe, alemanekin aliatu, eta fronte errusiarraren aurka borrokatzera joan zen, ni lagun ninduela. Ez dut sekula ahaztuko han bizitakoa! Han zen tiro hotsa: dinbi-danba! Odola, zauriak, gosea, tristura, negar-arpuluak, mina, beldurra... denak batera koktelizatuta sentitzen genituen gure bihotzetan eta era hontara igaro genituen zenbait hilabete, errusiarrek preso hartu gintuzten arte.



1916ko abenduan, Fisher-ek, geneukan egoeraz erabat jabeturik, eta alemanekin elkartzeaz nolabait damaturik, ihes egiteko zeukan asmoaren berri eman zidan. Ni ados, baina nola egingo genuen ihes errusiarrengandik? Ja! Horixe zen asuntoa!


Fisherrek, lagun siziliar bati, Cantucciniri hots egin, eta ihesa antolatzeari ekin zioten: honek soldadu errusiarrekin hitz egingo zuen, Fisherrek gaixotasun sendagaitz oso kutsakor bat zeukala esan zien: “meningitisa”.

Eta planak funtzionatu egin zuen! Soldadu errusiarrek ez zutelako nahi inolako gaixotasun larririk euren artean, nahikoa buruhauste baitzeuzkaten gerraren nondik norakoekin.

Cantuccinik, Fisher eta biok Siziliaranzko bidean jarri gintuen. Eta egia gordina aitortu behar badut, Fisherren asmoa ez zen Siziliara joatea Egiptora baino.

Azken aspaldian, Hamburg jaunak, aberasteko ametsa zuen. Egiptora joango zen, milaka eta milaka urte zituen sarkofagoren baten jabe egin, museo bati edo kolekzionistaren bati saldu, eta luzaro trankil eta aberats biziko zenaren asmoa.

Napolesko portuan, Egiptorantz abiatzekotan zen itsasontzia hartu genuen, eta *Kairo*-ra heldu eta batera, maleta gelan lagata, kalera irten ginen. Hura zen zoramena hura! Ezkerraldera begiratuta, segur aski hiriko aberatsena izango zenaren “Ford” markako kotxea antzeman zitekeen. Eskumaldera so eginez, laranjak saltzen zebilen gizona karrotxoaz







aldamenean. Atzealdean aldiz, artaldea ahuntzekin nahastua, ume bik gidaturik.

Koptoen auzunera joateaz gain, eta hildakoen hiria bisitatzeaz aparte, “*Khan Il Khalili*” merkatura joan ginen “ganga”-ren bat aurkitzekotan. Urrea, zilarra... barra-barra zegoen; inoiz ikusi gabeko zetazko tela fuxsia, gorri, laranja, urdin orlegiak; turkesa harriaz egindako kakarraldoak; usai exotikodun espeziak (aza fraia, pimenta beltza...); lotozko eta jasminez gauzaturiko esentziak...

Espeziak espezia, eta esentziak esentzia, beste itsasontzi bat hartu eta Nilon barrena kruzerotxo bat egin genuen Luxor-en hasi eta Aswan-en bukatuz. Bidaia hartan ikusi genituen ni baino mila eta bat aldiz handiagoak ziren erraldoiak, inoiz izango ez dudan pinturez eta hieroglifiko horituriko hilobia, Tutankhamon ospetsuaren altxor ikusgarria, harri bakarrez eraikitako hogeita hamar metro baino gehiagoko zutabeak, tenpluak...

Egunak joan egunak etorri, bla-bla-bla, bla-bla-bla, azkenerako, bidaiari bakoitzaren biografia osoa genekien, edo ia gehiena bai behintzat: bazen Parisko unibertsitate batean irakasle lan egiten zuen 62 urteko emakume oso argi bat; Elodie Dupont. Bazegoen baita, ama-seez osaturiko bikote bat. Ingeles aberats-aberatsak ziren hauek. Emakumea, Elisabeth, alarguna zen, eta semea, Charles berriz, *Cambridge*-eko unibertsitatean medikuntza ikasten zebilen ikaslea. Hala ere, nire ustez, lehenengo urtean zebilen, praktika gutxi nabaritzen zitzaiolako.

(Sukaldariak prestatzen zituzten buffet-etan, sekulako entsalada plater-kadak jan, eta bigarren egunerako kristolako beranzkoa harrapatu zuten bai berak eta baita bere amatxok ere.)

Laugarren egunean gosaldu ondoren itsasontzia utzi genuen:

*“Lehenengo eta behin egunon denoi. Sab-BAH el-Khair. Ondo gosaldu al duzue?”*

*Dakizuen bezala, Kom Ombo-ra iritsi gara, eta goiza libre utziko dizuet nahi duzuen egiteko, baina kontrolatu denbora, ordu batetarako hemen egon behar duzue eta.*

*Beno, eskumaldera joz, merkatua aurkituko duzue, edota bestela, gomendatzen dizuet sei libragatik tenplua ikustea.*

*Kom Ombo-ko tenplua, Horus-en eta Sobek-en ohorez eraikitakoa, Aswanetik 40km-tara kokaturik aurkitzen da. Tenpluaren zati bat, Nilo ibaira eroria izan zen zeren...”* –argitu zigun Aladdino giak.

Kom Ombo-n bidaiari guztiak tenplura joateko ados jarri ginen “regateo” pixka bat eginez, sarrerak merkeago lortzekotan. Ama-seeak berriz, ez ziren gurekin etorri. Eskumalderanzko bideari ekin zioten, “souc”-era, merkatura joateko.

Sartu ginen bada tenplu hartara non, giak esan bezala, zati bat ez zegoen begi-bistan. Niloko urek irentsi zutenaren kontua egia ote?

Pasa zen ordu erdi, pasa ziren bi... erlojuak ordu batak laurden gutxi markatzen zituenerako. Dudarik gabe, besteei abisua pasa, eta han abiatu ginen abenduko 20C-rekin eguzkiak gure buru-lepoetan gogor



jotzen zuelarik.

Ordu batak puntu-puntuan, “Noor” gure itsasontziaren parean geunden, eta bost minutu pasata, Aladdino, bidaiariak zenbatzen hasi zen: *wah-hid, it-nane, ta-lah-tah...* aibala! Bi falta ziren! Non arraio ote zeuden zokora joandakoak?

Bidaiari guztiak goseak zeuden (Aladdino batez ere, baina Ramadanean zegoenez, ezin zuen deus probatu eguzki izpiek eguna argitzen zuten bitartean) eta txalupa handira barneratu gintuzten bazkaltzeko: “*Babaghanouh mezza*”, bildotsa...

Asetu ginenean Aladdino gutun bat eskuetan zuela pentsakor ikusi genuen:

“ELISABETH ETA CHARLES GURE ESKU DAUDE. STOP.

EGIN ESATEN DUGUNA BI HORIEK BERRIZ IKUSTEA NAHI

IZANEGERO. STOP.

HONA HEMEN EGIN BEHARREKOA. STOP.

EGON OSIRIS PLAZAN GAUR ARRATSALDEKO 17:00ETAN. STOP.

ERAMAN ZUEKIN AZAL BELTZDUN EMAKUMEA. STOP.

DAUKAN FARAOTIEN URREZKO AMULETO ERRALDOI HORI

ERAMAN DEZALA. STOP.

ABDAKHARSHILA KOMANDOAA”

Mekauen zotz! Talde islamiar batek, bahitu egin zituen gure amasemeak eta euren bizitzak arriskutik at geratzeko zer eta Harried-ek zeukan “faraaien urrezko amuleto erraldoia” eskatzen zuten?

Gutuna irakurri eta jarraian, begirada guztiek Harried-en begi beltzekin egin zuten bat. Harried-ek berehala esan zuenez, berak ez zuen maleta bat besterik ekarri eta ez zeukan urrezkoa zen ezertxo ere ez. Are gutxiago, antzinako faraaien amuletorik.


Aladdinoren inguruan jarri ginen denok kolorge, Harried-ek zera esan zuen arte:

*-Badakit zeri deitzen dioten urrezko amuletoa!*

*-Zeri?*

*-Nire saxofoia nahi dute! Ja, ja, ja... ! Ene... Saxofoia faraaien amuleto? Ja, ja, ja... Sentitzen dut baina ezin diet inolaz ere eman. Zer izango da nire karrera musikalaz? George-ek saxofoi barik ikusten naue-nean beharretik botako nau! Ez dut kale gorrian hotzak akatzen egoterik nahi! Beste zerbait pentsatu beharko da. Saxofoia, nire jana, bizi osoa da eta. Do you understand?*

*-Baina uler ezazu Harried.- Aladdinok guztiz urduri- Hil edo biziko gauza da. Saxofoi hori ematen ez badiegu, akabatu egingo dituzte! Horrelako taldeak oso arriskutsuak dira, eta ez dira ezezko batekin konformatzen. Ondoren zuetako besteren bat bahituko dute nahi dutena lortu arte.*



Han izan ginen luze pentsa eta pentsa.

Termometroak eguerdian baino gradu bat gutxiago markatzen zuen soilik. Merkurioa, 28 zenbakiaren pareraino heltzen zen. Bero itzela egiten zuen! Ni blai eginda nengoen Fisher-en eskumako eskuan. Bere atzamarrek gelatina ziruditen.

Suabe-suabe, lurreko ohol zahar ilun distiratsua, nire begiengandik geroz eta distantzia hurbilagora sumatzen nuen, eta halako batean... aiiiiiii! Kopetan, konortea galtzeko moduko kolpe hartu nuen.

Bat batean, Fisher-ek ingurura begiratu zuen. Buruari gora eta behera eragin, baiezeko keinua egin, eta irribarre zabal batekin begirada

Harried-i zuzenduz zera galdetu zion:

-Ezagutzen al duzu “*When the Saints go marching in*” kanta?

-Nola ez ba! *Klasiko bat da! Abestea nahi duzu ala?*

-*Taldeko bi bahituta daude, hiltzear, eta zuek adar jotzen?*- giak.

-*Mesedez, baliteke lasaitzea, ...eutsi nire mikrofonoa.*- Fisher-ek.

-*Ongi da...*

*“Oh; When the Saints!*

*Oh; When the Saints!*

*Oh; when the Saints go marching in...”*

Konturatu orduko, sekulako korroa egina zegoen inguruan, eta airean krosant erreen usaina suma zitekeen arren, gu erabat izoztuta geunden.

-*Klap. Klap. Klap.*-txaloak- *Klap-klap-klap, klap-klap-klap...*  
-txalo zaparrada gero.

-*Zoragarria* -esan zuen Fisherrek hunkiturik.

-*Bien sûre, mon cher ami* -Elodie, unibertsitateko irakasleak.

-*Eta tratu bat egingo bagenu?* -Fisherrek.

-*Zein tratu?*

Tratua: Saxofoia, “*Bit Roler*” garesti eta dotorearen truke.

Eta Fisher-ek, talde islamiarrari saxofoia emanaz, “*Noor*” itsa-sontziko kapitain egin zen.



Di-da, “*Amon Ra*” kafe famatura iritsi, egin beharrekoak egin, eta ni, Harried-en kamarotera eraman ninduten.

1918eko otsailaren 4ean, ugazabandrea eta biok gerra erdi bukatzeaz zegoela, Alejandrian transatlantiko batean itsasoratu ginen. Bertan igaro genituen hogeitun egun, bi ordu eta berrogeita zazpi minutuetan, makina bat alditan egin genuen lan elkarrekin entsaio gisa edo. (Estatu Batuetara heltzerakoan, jazz izarrak bihurtzeko!) Emakume hura gogoko nuen, eta are gehiago bere kantak eta ahotsa.

Handik gutxira, beste musikari batzuekin egin genuen bat eta “Old blacks” jazz banda sortu genuen. Asteko egun bikoitietan, hirugarren klasekoen jantokian sekulako “juergak” muntatzen genituen beheengo solairuan. Eta gutxien espero genuenean, goizeko bostak aldera, gizon bat zarataka, ate joka hasi zitzaigun:

*“Ladies and gentlemen, we will arrive to New York in a half an hour. Please, make sure that you take your baggage and thank you very much for travelling with us!”*

Ondo esnatu orduko, taberna moduko bateko eszenatoki txikian nengoen, hantxe, erdi-erdian kokatuta. Harried-ek, handik zebilen gizon bati azalpenak eman zizkion nola saxofoia jotzetik abestera pasa zen zeren Egipton..., bakarlari bezala lan egiteari utzi eta talde berri bat osatu zuela...

Eta minutu gutxira...

Bateria-jolearen lehenengo kolpeak danborrean: *pon-pon, pon...*,

pianistaren atzamarrak teklatuan dantzan: *do, mi, fa...*, baxuaren akordeak gero, eta saxofoiaren soloa: *turutupupupa...* guztia, Harried-en ahots leunarekin nahasia: “*Oh my love...*”

Harried-ek bizitza transformatu ote zuen auskalo, baina nik zehar-ro!

Askozaz gusturago sentitzen nintzen orain koloreetako argiz beteriko taberna ilun hartan. *George's, New Orleans*-eko “*Lee Street*”-ean zegoen kokatuta, eta kanpotik begiratuta sekulako lokala ematen zuen arren, barrura sartuz gero, ez zen hainbesterainokoa. Bertan igaro nuen gaztaroa, eta betirako ondo markaturik gelditu izan zaizkit “*George's*” taberna, hango gauetako giro ketsua, kristal hotsak, whisky usaina, jazz musika, “*Old blacks*” taldea eta bertako abeslaria: Harried.

Era honetan pasatu nituen bizitzako urterik eroenatarikoak tortillak buelta eman zuen arte: zaharkitu arte. Gogo eskasa nuela, bizkarrara... Harried-ek, “*George's*” tabernatik atera ninduen, eta “*High Street*”-eko “*Real Antiquities*” dendara eraman.

Ezin izan nuen nire jabearen eta dendariaren arteko elkarrizketa entzun, poltsa baten sartuta nengoelako. Baina kontua da, bat-batean, begiak ireki, eta traste zahar pilo baten erdian aurkitu nuela nire burua. “*Zertarako ekarri naute hona?*” Galdera hori makina bat aldiz egin nuen neure kautan, baina ez dakit zertarako urduritu nintzen hainbeste, ondo pentsatzen jarrita, ez zitzaidalako gaizki etorri han egotea, neukan estresa erabat kentzeko. “*Arnedillo*”-ko bainuetxean egotea lez zen eta, gainera, xentimorik gasta gabe!





Behin, nire oroitzapenekin nengoela, eta ez 1956. urte hartako gora-beherekin, kamiseta zuri, larruzko jaka eta praka beltzdun lau gizonetzko erraldoi sartu ziren dendara eguzkitako betaurreko eta guzti. Hauen erdian oster, zuriz jantzitako beste bat zegoen. Azken honek, janzkera bitxia zeukan benetan! Praka zuri estu-estu akanpanatuak zera-matzen, kolore berdineko jaka, lorez josiriko alkandora bizia, ilea atzerantz orraztua hiru gomina poterekin, ahorainoko patila beltzak, eta eskumako eskuan gitarra elektrikoa.


Bitan pentsatu gabe, dendako tramankuluei begirada bat botatzen ari zela, parean siku gelditu, ni entxufatu eta...

*“Maybellene,  
What can be true,  
Oh Maybellene...”*

Bai jauna! Rock-aren erregea zen! Elvis! Elvis Presley!

Dendariarekin tratua egin, poltsan sartu, eta Elvis-en gerizpea bihurtu nintzen segundo gutxiren buruan. Kontzertu guztietara berarekin eramaten ninduen, inspirazioa sortzen niolako edo. Sekulako astinduak hartu nituen bere eskuetan, eta hamasei urteko gazte baten freskotasuna berreskuratzen nuen berriro. Sasoian sentitzen nintzen, gustura eta zoriontsu.

Estatu Batuak goitik behera zeharkatu nituen, eta sekulako indarra ematen zidan eszenatoki erraldoi haietako aurrealdean kokatzen ziren





milaka eta milaka “fans”-en oihuak eta txaloak entzuteak. Neska gazte-  
en negarrak. Hura zen zoramena! Hura zen gozada!

Baina, garai on eta zoriontsu guztiek legez, noizbehinka, ez hain  
zoriontsu eta onek jotzen dute atea.

1977an *Memphis* hirian izan zen. Elvis-en palazioetariko batean,  
bere logelako ohe gainean nengoela, atea kolpe batez zabaldu zuten.  
Larru beltzez jantziriko erraldoi haietariko batek kaxa batean gorde nin-  
duen, bere begietatik, zenbait negar-arpulu isuri ostean.

Ez dut sekula jakin zer gertatu zen, baina antza denez egun har-  
tan Elvis-en bihotza geratu egin zen.

Berriro sats eginda gelditu nintzen. Eta hori gutxi balitz, hoge  
urtez ia-ia, kaxa berberean sartuta harik eta behingoz, irekitzea erabaki  
zuten arte:

*-1000 \$ bai? Bai! 1500! 1800! 2000 \$! 10 600! 10 600 \$ jaun  
andreok! 10 600 \$ baino gehiago bai, ez? Ez! Bat, bi, hiru... pun-pun!  
Hirugarren ilaran eserita dagoen grisez jantziriko jaunarentzat 1901.  
urtean Austrian sorturiko “Bit Roler”-a! Elvis Presley-k bere kon-  
tzertu guztietara eramandako mikrofonoa!*

Horrela, New York-eko museo batean, faraoien amuleto bezala ez,  
baina Elvis-en kuttuna nintzenez, areto nagusian, erdi-erdian jarri nin-  
duten erakusgai karteltxo batekin:






## MUNDUKO LEHEN MIKROFONOA

1901ean Austrian sorturiko “Bit Roler”-a.

Elvis Presley-k erabili zuen: 1956tik 1977ra

Bertan pasa nituen zenbait urte, hona, Bilbo-ko “Guggenheim” museora ekarri ninduten arte. Eta egia aitortu behar badut, daukadan adinarekin, Bilbo-n New York-en baino trankilago eta erosoago bizi naiz sekretuz beteta, iraganeko kontuak gogoratuz.



2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

18

Irabazlea

18 urtetik  
gorakoen sailean

2001



Josu Unzueta

18

2001

MARTXOA



## ERRETRATUAK EGITEKO BAINO EZ NAIZ BIZI

*N*ire erkideek behartua, hemen bizi naiz, herriko parkean, izarpean, lili eta zuhainez inguratua.

Urteen joan-etorriarekin, txoko honetan gertatzen direnak buruz ikasi ditut. Begiak itxita, iretargia ikusten dut, ortzeko pristia izarjale hori, bere nabigazio gorrian. Belarriak zur, gauaren arnasa pausatua entzun ohi dut, eta haizearen ufakoa, hodei saldoak eta hegaberen hegaldia bulkatzen. Txirri-txirri eta ugaraxoen kantuekin lokartzen naiz, epertargiak lagun. Eta, sarri, ipar-lausoaren izara bustiak inguratzen nau, maitale isilaren antzean.

Egunabarraren laztan epelak iratzarrita, beste egun baten taupada biziak igartzen ditut, gero eta ozenagoak. Laster, kaleargiak amatatuaz bat, herria hanka biko txindurriz beteko da, nor bere otapurren bila. Eta ni berton, talaian.

Gizakiok, denboraren poderioz, zer bi baino ez ditugu metatzen: urteak eta antojuak. Apetak. Zahartu ahala, gainera, mania bihurtzen

direnak. Bezeroaren aurrean burua apur bat apaltzeko jasa zuen zerbitzari hari gertatu zitzaiona legez: zaletasun hori keria bihurtu zitzaion, eta zahartzaroan makur-makur eginda ibiltzen zen, burua hankartean.

Niri ere berdin. Lanbidez argazkilari izan naiz, eta orain, erretiroan, jendearen erretratuak egiteko baino ez naiz bizi. Begiratoki hone-tatik, barrez, ez dut kameraren beharrik inguruko gizakien argazkiak egiteko. Bai, nire begi zorrotzek laratro isilen antzean egiten dute behar, aurrean paretan denaren erradiografia egiteko. Begiratu batez, beldurrak eta grinak irakur ditzaket, hala gogoetak nola gomutak.

Mundua ez da dirudiena. Seguru nago eskolan kontatu zizkigute-nik asko ere guzur huts direla. Paradisuarena, esaterako.

Nire kameraren begiak diostanez, hauxe jazo zen atsegin-baratz horretan: baldin inoiz paradisurik izan bada, beraren kukutzean, hasieraren hasieran, arbola bat zegoen. Sagarrondoa. Suge bat hurbildu zela, arbolaburutik gizaki batek egin zion berba:

-Hartu egizu sagar bat, geben-fruitua da eta.

Sugeak sagarra jan zuen, itxura ederrekoa baitzen.

Harrezkero, sugeak paradisutik at bizi dira, eremu-basoetan, sas-traka artean, eta galarazota dute fruituak jatea. Endemas gorrak dira, gizakiaren burubide galgarriak entzun ez ditzaten.

Horrelakoxe guzurrekin bizi gara denok. Goizero nire aurretik pasetan zen gizona legez. Dendari umila izan arren, txakur-ametsak egi-





ten zituen arratsaldero, parkeko jarleku baten jesarrita, denda itxitakoan. Txokor bat ezpain artean, ez zen konturatzen bere ametsak ahotik botatzen zuen kea bezain ezdeusak zirela.

Egun baten, bere etorkizuna inoiz baino zoriontsuagoa zekusala, txokorra izetu eta auto zaharrera abiatu zen, negozio gizon batengana joatea deliberatuta. Ez dakit zenbat diru eskatuko zion, denda handitu eta txukuntzeko. Handik aurrerakoa, aldats beherea baino ez zen izango, jakina. Koittaduak ez zekien patuak beste zeozer prestatua ziola: kalekantoi baten ostean negozio gizon horrek gidatzen zuen autoarekin egin zuen talka. Burdina artetik atera zuten dendariaren gorpu sakaildua, bere ametsak afrontuak eta euri-truixuak deseginda.

Parkean bizi izanda, bertotik ikusten ditudanekin erretratu bilduma itzela egin nezake. Erretratu bakoitzaren barruan, endemas, mundu bat gordetzen da, sarri gurea baino bitxiagoa. Parke aurreko etxeetan bizi zen gazteari jazo zitzaiona, kasurako.

Balkoian zegoen, eguzkitan, begiak itxita. Alboan zuen irriaren musika goxoak kulunkatuta, erdi lo zegoen. Halako baten, ostera, musika eten eta ahots sakon bat entzun zuen, berari deika legez.

*“Txist! Txist! Bai, hi heu, itzartu hadi! Zer, bazkalondoko nagiak harrapatuta ala? Hara, musika ezti horren ostean nire txanda duk, gazte! Badakik zertan nabilen? Margoihal bat pintetan, horrexetan. Jakina, hagoen lekutik, irriaren bestaldetik, ezin duk ezer ikusi, baina imajinatu egik margolana, zelan noan oihal zuriko ezerezetik unibertso bat*





sortzen. *Lehen planoan, estatua bat. Honen atzean, zuhaitz batzuk, loratan. Bai, saiatu hadi imajinetan nire pintzela arin mugitzen. Oraintxe bertan uso bat pausatu duk estatuaren gainean, eta, badakik?, pintzelaren mugimendu bizkor batez harrapatuta geratu duk nire irudian, dagoeneko ezin dik alde egin. Bai, hasi haiz konturatzen, entzule hori, margolari berezi samarra nauk, abilezia arraro hori diat, errealitatea xurgatu egiten diat, nire margolanetara ekarri...*”

Gazteak, balkoiko etzaulkitik erdi jagita, irratitari begiratu zion, mesfidantzaz. Berba haiek, itxura, artegaratu egiten zuten. Baina irratiko ahotsak bere berba jarioari ekin zion.

“*Tira, gazte, ez hadi larritu. Gura baduk, estatua oihaletik eza-batu egingo diat, horrela uso hori aske geratuko duk, nire margolanetik urrun. Hara, ikusten duk berriro ere hegan? Baina oraindino ez diat neure lana amaitu, ez. Atzealdeko etxe horiek pintatuko dizkiat. Azken pisuan andre bat zegok, lehortutako arropa batzen. Bai, esan diat oso arina naizela, dagoeneko nire oihalean zegok. Haren azpiko etxeko leihoak itxita zeudek, hutsik egongo ote? Eta... eta azpiko etxean, amigo, sentitzen diat esan beharra baina... azpiko etxe horretan heu hago, bai, heu, etzaleku horretan, irratitari harritu aurpegiaz begira. Dagoeneko nirea haiz!*”

Harrezkero ez dut etxe hartaruntz begiratu. Badakit pintoreak eroan zuela, besapean, oraindino pintura lehortu barik zuen margoihal hartan harrapatua.

Neu ere parke honetan harrapatuta nagoen legetxe. Hementxe dago nire erbestea. Eta, erretiratuta egon arren, nire betiko beharrari lotzen natzaio, jendearen erretratuak egiteari, horrexetan egin nintzen ospetsu eta.

Eurekin berba egin ez arren, halako adiskidantza daukat parkera etortzen diren batzuekin. Nire ondotoxoan jesartzen dira, halako moduan ze euren bihotzen taupak nireak balira legez entzuten ditut.

Gogokoen dudan horietako bat agure bibotezuri burunahastua da. Bere artean ibiltzen da, marmarrean, bere bizitzako gertaerak behin eta berriro gogoratuaz. Gehien errepikatzen duena bere anaia bikotxa desagertu zenekoa da, zortzi urte zituztela.

Orduan hemendik urrun bizi ziren, menditzarren artean galdutako herritxo baten. Bertako etxeek lur azpitik hazitako troska ikaragarriak ziruditen, neurri eta itxura desberdineko leihoz josiak. Horrelako baten zegoen bere anaia, zeruari begira, azkenengoz ikusi zutenean.

*Leihoan dago anaia, hegan datorkion mitxelotari begira. Konturatu orduko haren atzean da, basoan, etxetik urrun. Mitxelotak, astigar baten abarretik, berba egin dio.*

*"Ni lehen izaki nazkagarria nintzen, itsusia. Orain, nire edertasunak liluratu eta etxetik jalgiazi egin zaitu. Zu, berriz, orain txikia zara, azala fin-fina eta zimurrik gabea duzu. Ederra benetan zure begirada berdea! Baina aurpegi hori zimurrez beteko zaizu, ile beltz hori urdindu, esku leun horiek zakartu. Lepoa okertu, haginak jausi eta betazpiak han-*



*ditu egingo zaizkizu. Ez nazazu, bada, harrapa! Edertasuna ezin da koa-  
derno batean orratz batez josita gorde.”*

*Etxean ama negarrez da. Bere umetxoa ez da ageri, eta erreko  
putzuren baten itoa imajinatu du. Gaua heldu da, umerik ez.*

*Goizean etxekoak eta inguruko auzoak ere haren bila irten dira.  
Errekan gora eta behera ibili dira, gero basoruntz jo dute. Lorratzik ez.*

*Bitartean, beste etxe baten, beste ume bat, leihoan pausaturiko  
mitxelotaren ederraz maitemindu da, begirada berdea duen mitxelota  
liluragarriaz.*

*Agure bibotezuriak modu berean kontatzen ditu beti gertaerak, jazo  
berriak balira legez, bere begi berdeetan bi mitxelota kaiolaturik. Neu ere  
gatibu. Aske nahi nuke, mendirik mendi. Baina ez. Hementxe ditut sus-  
tarrak.*

*Astiro–astiro, eguzkia, ortzera jaurtitako suzko goronbil hori,  
hodeiertzeruntz abiatzen ari da.*

*Parkea hutsituz doa. Han–hemen, gazte bikote bakan batzuk baino  
ez, zirri eta barre. Horientzat denborarik ez. Elkarren geografia miatzen  
dihardute, bihotzen taupada eroen mende.*

*Haize gorria altxatu da. Haizeak, alegia zaharrak munduaren zur-  
kulu batetik bestera eroaten dituzten txalanda horiek, nire adiskiderik  
kuttunenak bilakatu dira. Zenbat istorio ez dizkidate xuxurlatu!*



Haize gorri honek, esaterako, sarri kontatzen izan dit ipar-muturreko elezahar tristea.

*“Iparraldeko lurralde zabal hotzean –hasi ohi da haize gorria, bere ahots lakarraz– bertako lagunak gaitz larri baten beldur dira. Neguko gau luzeetan –han neguko eguzkiak ez du ia argitzen– etxeko ateari giltza eman, leihateak trangatu eta lotara belarri zuloak kotoiz estalita joan ohi dira. Kanpoan gauaren errege den Otso Zuriari diote beldur. Ez edozein otso zuriri, aldika agertzen den Otso Zuri Handiari baino. Gaueko anima bakartien lorra darama berarekin, eta ezin da inon geratu.*

*Neguoro Iparraldeko lurralde guztia zeharkatzen du, pausatu ezin den hegabera baten antzera. Eta gauez haren ulu negartia entzuten duenak ez du berriro argiaren begia ikusiko. Alegiak dioenez, uluak badu ahalmen berezia lo dagoena ohetik altzarazi, etxetik atera eta iluntasunean betiko desagertarazteko, ametsetan entzuten ari den kantu liluragarriak erakarrita. Eta gau jakin batzuetan, Iparraldeko lurralde hotz hartan, ostargi-gorria ikusi ohi da ortzean. Otso Zuriak harrapatutakoen arimak dira, goialde hartatik beren etxetxoei begira, ohetik jalgiarazi zituen kantu liluragarriaren mendean dantzan.”*

Ez ote dago niretzat berarekin eroango nauen ulu magikorik? Zer bekatu egin dut, hemen egotera derrigortzen nauena? Ikuspegi berbera erretratatzera zigortutako argazkilaria naiz. Baliteke zorigorrekogoia izaterik? Zer maitasun eman diezadake kaiolaren askatasuna eskaintzen didan maitaleak? Ez, nik aske behar dut.

Behin hegoaldeko haize zuriak kontatu zidan artzaintsaren istorioan legez, ez dago ni gatibatuko nauenik.

*“Hara -esan zidan haize zuriak, bere ahots eziaz- zu jai baino ehun bider ehun urte lehenago, Ararat zeritzan lurraldean, bazen sendi aberats bat seme bakarra zuena, Haffat izenekoa. Zer nahi, hura lortu. Horrela hazi zen, gosea edo estuasuna zer diren jakin gabe.*

*Behin, mendi aldean zebilela, zarata bat entzun zuen. Lasterrera artzaintsa bat agertu zitzaion, bere artaldearekin. Hain zen ederra, ikusiaz bat maitearen minak harrapatu zuen.*

*-Nor zara, ederrenetan ederrena?*

*Neskatoa, mutila ikustean, gorritu egin zen.*

*-Ikusten duzu, jauna, artzaintsa bat besterik ez.*

*-Zure ardi guztiak eta ehun artalde gehiago erosteko beste diru dut nik. Non da zure aita, eskua eska diezaiodan?*

*Neskatoak, burumakur, apalki erantzun zion.*

*-Basamortuaren ostean beste ehun basamortu zeharkatuta ere ez zenuke aurkituko.*

*-Ba, orduan, etor zaituz nirekin. Andrerik zoriontsuena egingo zaitut.*

*-Haizea ezin da kaiola baten barruan gorde. Nire bihotza ere halakoxea da, jauna, aske behar du.*





*Haffat ezetz horrek sumindu egin zuen.*

*-Lortuko ez dudan gauzarik ez dago lur azalaren gainean, maitea.  
Nahi edo ez, nirea izan behar duzu!*

*Artzaintsak burua jaso eta begietara egin zion so.*

*-Nire gorputza kateaturik eroan zeinke, baina nire bihotza beti  
aske izango da.*

*Haffat bigarren ezetzak bere onetik atera zuen. Ezpata eskuan,  
mehatxu egin zion.*

*-Zatoz nirekin, edo bertan hilgo zaitut!*

*-Hil nagizu, bai, atera egidazu bihotza eta lurperatu egizu. Baina  
jakizu, honegatik, zu eta zure ondorengo guztiei negarra eragingo dizue-  
dala.*

*Gorrotoak itsuturik, neskatoa hil, bihotza atera eta lurpean ezku-  
tatu zuen.*

*Egunak joan, egunak etorri, Haffat neska hil zuen tokitik igaro zen  
halako baten, eta ezagutzen ez zuen landare bat ikusi bihotza lurperatu-  
rik zegoen bazterrean. Errotik atera eta hara zer ikusi zuen: azal gorrix-  
ka zuen erraboila.*

*-Nola erne daiteke bihotz lurperatua? Txikitu egingo dut! -era-  
baki zuen amorraturik.*

*Labana atera eta erraboil hura zatikatu egin zuen.*



*Atoan, begiei itsaso bat malko jario zitzaien, eta harrezkero kipu-  
la bat txikitzen duen oro negarrez hasi ohi da, egiaz artzaintsa ederraren  
bihotza ziztatzen ari baita.”*

Badator gaua, ortzean izarñoak izetzera datorren emakume soine-  
kobeltz ederra.

Beste egun bat igaro da. Azkena, ostera. Bai, burubiderik gatxe-  
na hartu dut: alde egitea. Nire bihotz artegatuak trapaladan gura du  
hemendik urrundu, beste paisaia batzuk ikusi, beste erretratu batzuk  
egin...

Gaua lagun, lotzen nauten kateak eten eta betiko desagertuko naiz,  
ume haren antzera, tximelota liluragarrien atzean.

Edo ez. Biharamunera arte itxarongo dut. Horixe izango da nire  
mendekua. Isilpean eta ezkutuka barik, denon begi aurrean egingo dut.  
Behingoagatik, neu izango naiz erretratatua, neu begi eta kamera guz-  
tien jomuga.

Parkea jendez beteta dagoenean, idulkitik jauzi egin eta lasterka  
hasiko naiz, zantzoka, egundokorik zorientzuen, inguruko harriduraz  
gozatuz, argazkilariaren estatua zaharra arrapaladan zelan urruntzen den  
zurturik begiratzen dutela.

bertso  
paperak



Irabazlea  
11-12 urteko  
sailean

2001



Paule Trapilla 18

2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

18






## EUSKARA BIZIAN

Gure Euskal Herrian  
euskara behar degu  
ta jendeak ordia  
hori ahazten du  
Irtenbidea atera  
ta hizkuntza mantendu  
horretarako euskara  
ahotik ez kendu

Eskolan zein kalean  
euskara bihotzian  
ez bakarrik kalean  
baita ere etxian  
Denok ohitu behar gara  
lagunen artian  
ta mintzatuko gara  
euskara bizian





Irabazlea  
13-14 urteko  
sailean

2001



Ekain Etxanobe

18

2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

# BERTSOAK



Mañarian jaiota  
euskaldun hasita  
sagardoa edaten  
bertan ikasita  
taberna eta festetan  
egunero ibilita  
han gelditu zen neska  
dotore eta polita (bis)

Txapelketa hontara  
zu apunta zaitez  
ondo dibertitzeko  
bertsoak eginez  
tutoria ordua  
galdua dugunez  
aprobeta dezagun  
kantuen bitartez (bis)

Hizkuntza polit hau eman  
zigun goiko Jaunak  
ta kendu nahi digute  
guri erdaldunak  
Ez dezala ikasi  
gogorik ez dunak  
gora Euskadi  
gora Euskaldunak (bis)

Gran Hermano ta hoiek  
guztiak erdaraz  
kalean lagunekin  
sekula ez euskaraz  
noiz hasi behar gara  
jokatzen ganoraz  
daukagun hizkuntza hori  
aprobetxatuaz (bis)

# BERTSOAK

Martxoaren Justizian

1. Martxoaren 10ean  
2. Martxoaren 11ean  
3. Martxoaren 12an  
4. Martxoaren 13an  
5. Martxoaren 14an  
6. Martxoaren 15ean  
7. Martxoaren 16an  
8. Martxoaren 17an  
9. Martxoaren 18an  
10. Martxoaren 19an  
11. Martxoaren 20an  
12. Martxoaren 21an  
13. Martxoaren 22an  
14. Martxoaren 23an  
15. Martxoaren 24an  
16. Martxoaren 25ean  
17. Martxoaren 26an  
18. Martxoaren 27an  
19. Martxoaren 28an  
20. Martxoaren 29an  
21. Martxoaren 30ean

(10)

Tranquilizadoreak


Hizkuntza-jarduerak

1. Martxoaren 10ean  
2. Martxoaren 11ean  
3. Martxoaren 12an  
4. Martxoaren 13an  
5. Martxoaren 14an  
6. Martxoaren 15ean  
7. Martxoaren 16an  
8. Martxoaren 17an  
9. Martxoaren 18an  
10. Martxoaren 19an  
11. Martxoaren 20an  
12. Martxoaren 21an  
13. Martxoaren 22an  
14. Martxoaren 23an  
15. Martxoaren 24an  
16. Martxoaren 25ean  
17. Martxoaren 26an  
18. Martxoaren 27an  
19. Martxoaren 28an  
20. Martxoaren 29an  
21. Martxoaren 30ean

Grin-Hizkuntza

Irakatsen gaitzesak





Irabazlea  
17-18 urteko  
sailean

2001  
MARTXOA  
Txomin Magdalena 18



## XIRULA HARTUTA

*doinua: Trumoi...*

Xirula hartu eta lehenbailehen  
etxetik ihes egin behar nuen  
eta Bilboko kale kantoian  
naufragatu dut ondoren.(bis)  
Doinu triseen melankonian  
bero banengo bederen,  
muga non ote dagoen?  
begiak itxi eta ez dakit  
jadanik hilda nagoen.(bis)

Ezer be ez naiz bizi katean  
bakarrik bizi naiz isilpean  
begi zimeldu, irri triste ta  
xirularen doinuean.(bis)  
Holan luzaro bizi nahi nuke  
lasai-lasai ta pakean,  
gaba amaitu artean,  
amets goxoak izaten ditut  
paper ta kartoi artean. (bis)



Zenbat eskale, zenbat makarra,  
gaba hotzean puten indarra,  
zubia pasaz soma daiteke  
San Franciscoko mar-marra (bis)  
Etxe zaharkitu ta herdoilduen  
sukaldeko argi zaharra,  
gora so egin beharra,  
Bilbo zaharraren sabai grisa da  
gure teilatu bakarra. (bis)



Naufragioan doan ontzia,  
gizarte honen alegrantzia,  
pasatzen diren ume txikien  
barrearen garrantzia. (bis)

Nola pertsonak ni gizaki lez  
jada naukaten ahantzia,  
zer den indiferentzia?

100 pela botaz lasaitu ohi da  
gizakien kontzientzia. (bis)

Negu hotzean horrenbeste gaitz,  
ardo txar eta zaborren usaiz,  
nire paretik pasatzen diren  
askok pentsatzen dute maiz. (bis)

“Ze desgrazia!”, “hau pena ama!”

ondo sentitzeko garaiz,  
dabiltza pauso txiki alaiz,  
azken finean danontzat soilik  
beste eskale bat bainaiz. (bis)







Ezer be ez da hemen eztia.  
Ni gixajoa, ni amestia,  
usteldu ere egingo zaigu  
honezkero eguzkia. (bis)  
Nik ez dut gura txanpon zikinen  
dirdira eta izpia,  
ezetz ta ezetz, ostia!  
beroa eta etxea baita  
nik gura dudan guztia. (bis)



2001



Julen Zelaieta

18

2001

MARTXOA

18

2001

MARTXOA

18

Irabazlea  
18 urtetik gorako  
sailean



# SAR DADIĻA KALABAZAN

*doinua: begira nago jarria beraz*

Ohe barruan sartu berriko  
manten dardara hotzetan,  
izarapean, izarartean  
lokartzear, izarretan,  
amaigabeko pentsamendutan  
sarturik nintzen horretan,  
maiteminaren lotsetan, (bis)  
zure lilurak lagundurikan  
begiak itxita, bertan,  
ipuinen mundu zoragarrian  
sartu nintzen ametsetan, (bis)





Ta bapatean ehiztari nintzen,  
Zu, txanagorritxu zinen,  
han zindoazen basoan barna  
hain polit eta hain lerdan.  
Otsoa zure atzean zela,  
riflea hartuz, lenbailen,  
kartutxoak bete ondoren, (bis)  
gatilloari eragitea  
etzen hain zaila izanen,  
baina otsoak arrazoi zuen:  
jateko moduan zeunden (bis)

Hansel ta Gretel bihurtu eta  
lagun genuen zorrea;  
ametsetako etxe batera  
iritsi ginen, maitea,.  
Txokolatezko pareta zuen,  
ta litxarreriz betea,  
gominolazko atea...(bis)  
baina enuen inoiz pentsatu  
bat bera ere jatea,  
nahiko goxoki baitzen neretzat,  
zu nerekin izatea.(bis)

Hiru txerri txo, zu laugarren bat,  
Guztiak zorionean.  
Nik nere lanak amaitu eta  
une aproposenean,  
lastozko nere habi goxoan,  
lohizko ohe barrenean,  
lizunkerien menean, (bis)  
"txerrikeritan" astear ginen,  
txokorik zikinenean,  
baina akabo!, otsoa heldu  
ta putz egin zuenean (bis)

Ni, txirulari gazte bat nintzen;  
han zen Amelin nire zai,  
xaguz beterik zegoen eta  
han, xagurik etzuten nahi.  
Nere ezpainen artean hartuz  
putz egin zintudan alai;  
txirulalai!, txirulalai!... (bis)  
Zure doinuak izandu ziren  
denak ateratzeko gai.  
Amelindarrek eskertu zuten  
nere ezpainen ere bai (bis)



Printze urdina nintzen jadanik  
Sinesterik, alafede!  
Mari Errauskin zinen orduan,  
tristurak egina bere,  
zapata galdu zenuen eta  
nik zu aurkitzea xede.  
Maitasun adina fede, (bis)  
Bixtan zegoen: urrezko soinak  
egiten zizun mesede,  
Hala ere zu ederra zinen  
arropa zarrekin ere (bis)


Edurne Zuri, basoan zehar  
pasiatzen nembilela  
kanpokaldetik, lehio ertzetik,  
ikusi zintudan bela;  
Saloian zeunden, zazpi ipotxak  
alboan zenituela,  
mimo artean zeudela, (bis)  
ikusi hutsez, senti nezaken  
zure eskuen epela!  
aitortzen dizut une haietan  
ipotx izan nahi nuela (bis)







Loti ederra zinen hartara  
pasatu nintzen hurrena,  
baina berandu iritsi nintzen,  
hilda baitzeunden, ze pena!  
Muxu goxo bat ematea zen  
egin nezaken onena.  
Zetorrela!, zetorrena, (bis)  
Belaunikatu, muxua eman  
ta aldrebestu zen dena,  
zuk bertan lotan jarraitu eta  
ni nintzen ernatu zena (bis)



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento